ALMACÉN DEULTRAMARINOS AL POR MAYOR
ESPECIALIDAD EN CAFÉS

**BENITO MÚGICA**

Santa María, 13-15.-RENTERIA.-Teléfono 6.057

FARMACIA Y LABORATORIO

**F. de OLACIREGUI**

ESPECÍFICOS NACIONALES Y EXTRANJEROS
AGUAS MINERALES, ETC., ETC.
ESPECIALIDAD EN EL DESPACHO DE RECETAS
CON MEDICAMENTOS QUÍMICAMENTE PUROS

Viteri, 9 :-: RENTERIA :-: Teléfono 6.009

# ERRENTERIKO JAYAK

*Errenteriko erri-batzar argidotarrak, bere Errandre. Dona Magdalena-ren izena gora dezagún; onarturik erabaki ditu ondorengo jaiketak*

## AZALKAYA

Uztaillaren 21ko ostegunean.—Goizeko bederatziyetan, eskoletako aurrak eta oen batzarrak entzungo dute meza bat.

Meza ondoren, Erri echian egingo da eskoletako aurren arteako sariketa, ta aurr oek berak izango dira itzaldituko diranak, ta gañera kantatu, ta erezi batzuek ere esango dituztenak.

Arratsaldeko bostetan.—Zumardi aundiyan egingo da, aurdarozko jaiketa, lagunduaz erriko musikak, ta gero eskudantza dantzatuko dute, ta emango zaye guztiyan ordaintzat afal-aurrekua.

Arratseko zortziyetan.—Irten ta kalez kale ibilleko dira, chancho aundi ta buru aundiyak erriko musikak laguntzen diyela.

Arratseko bederatzi t'erdiyetan.—Erriko musika ta danboliñak chan-

Fábrica Electrotécnica

**- Guillermo Niessen -**

RENTERIA

*Teléfono 6-047*

*Material Pequeño para la Electricidad—Tornillería de alta precisión—Objetos de fantasía para escritorios Artículos de Bazares. -:- Objetos Religiosos*

CONCESIONARIO EXCLUSIVO DE LA

**BAKELITE**

*El mejor material moldeable aislante del mundo.*

*Fabricación de toda clase de objetos en todos los colores.*

daka egingo dute beren ekin aldiya zumardiko doñu-echolan, ta ondoren izango dira, zezen siizko ta 200 neurkadun valentzitar trakaren kizkalketa.

22an Ostiralian.—Lenengo Magalen jaya. Sendi beartsuen artean, goizeko zortzi t'erdiyetan, erri batzar argidotarrak emango ditu errezi-yuak, (bazkayak).

Bederatzi t'erdiyetan.—Erriko musika lagun dutela, joango dira apaiz ta erri batzarra Magdalenako ermitara ta emendik egingo dute Errandre donaren aldaketa eliz nausira.

Amarretan.—Izango da meza nausi gain gañekoa; ta sermoya egingo du sermoigille ospetsu batek. Meza nausi ondoren erriko musikak egingo du ekin aldi bikain bat konsejupian.

Amabiyetan.—Beartsu echeko biztanleai emango zaye bazkari on, ta berezi bat.

Lau t'erditan.—Jokatuko da eskulariyen pillota partidu aundi bat, pillotari ospetsuenetakoen artean.

Arratsaldeko sei t'erditan.—Kalez kale ibilliko da musika bat jendiari adierazten azalkayak agintzen duben erara, izango dala zezenkoen chuliaketa, chulia plazan.

912



Almacén de Bicicletas
y accesorios

DE

ALCORTA AUTOCAMIÓN INDUSTRIAS (S. L.)

Avenida Alfonso XIII

RENTERÍA

Teléfono número 6-165.

*Grandes existencias a precios sin competencia en todas las principales marcas como "Automoto", "Alcyon", "Peugeot", "Cristophe", "Miami", "Unic" y "Lindberg"*


Jolasketa onen ondoren Fueroen plazan egingo du dantza soñuen ekintza arratseko zortziyak arte erriko musikak.

Bederatzi t'erditatik amabiyak arte.—Esan dan musika berak, eta dambolíñak chanda-a egingo dute beste sayo bat Fueroen plazan.

Bitartietan erreko dira suzipritzak, egille ospetsu batek egiñak.

23an Larunbatean.—Goizeko bederatziyetan egingo da aberreen bilkida, Gipuzkoako Diputaziyo ta Consejo provincial de fomento-ren izenakin ezagutzen diranen laguntzakin, ta ontarako erri batzarrak ere laguntza aundiyak onartu ditu, aurkesten diran aberreen sariketarako.

Arratsaldeko lau t'erdietan.—Egingo da aberreen sariketa egin ondorengo erakusketa.

Ondoren neurtuko dituzte beren gayak azpu soñu jotzalle edo acordeonistak, ta gero izango dira euskal gai dun jaiketak.

Arratseko bederatzi t'erditan.—Fueroen plazan joko dute musika ta dambolíñak amaikiyak arte.

24ko Igandean.—Chancho galantak eta buru aundiyak, kalez kale ibilliko dira golzeko zortziyetan dambolíñaren soñu laguntzaz.

Amar t'erdiyetan egingo du bere sarrera Sicila rejimentuko musikak.

Amabitan egingo du zumardiyan ekin aldi bat esan dan musika berak.

# Fabril Lanera. - S. A. - Rentería

Fábrica de Hilados de Lana y Estambres

Tejidos de punto de lana

Tintorerías

Estambre y lanillas para toda clase de labores.

Gran colorido


Arratsaldeko iru t'erditan etorriko da Ondarrabiko musika, Siciliakuakin chandaka jo dezen illunabarra arte Fueroen plazan.

Arratsaldeko bostetan izango da azalkayak agintzen duben eran' zezenkuen chuliaketa.

Arratseko bederatzi t'erditan.—Jaiketa aundi ta dizdiratsuak egingo dira, bi eratako lumenariyakin VERBENA, esaten zayona izango da, musika jotsalleak izango dirá, Siciliakua, Ondarrabiko musika, dambolíña, triki trixa ta filarmonika.

25ean Astelencan.—Santiago-ren jaya.—Goizeko zortziyetan ibilliko dira chancho ta buru aundiyak dambolíñakin kalez kale.

Amaiketau meza nausiya, 'ta ondoren Magdalenaren aldaketa bere lekura.

Amabiyetan joko du erriko musikak zumardiko doñu echolan.

Arratsaldeko lauretan.—Pillota partidu polit bat jokatuko da jokazaleen artean.

Arratsaldeko bostetan.—Izango da zezenkoen chiliaketa, ta erriko musikak, zumardiyan illunarra arte joko ditu dantza soñurik pollitenak.

Arratseko bederatzi t'erditan musika ta dambolíñak joko dituzte dauzken soñurik pollitenak, bitarte ontan erreko dira su kurpillak, ta jaiketa guztiyai aurtengoz bukaera emateko, zezen suskua erreko da.